


Irakaskuntza publikoko ikastetxeen gastua %9,4 igo zen 2001 eta 2003 artean

Ikasleko batez besteko gastua 4.865 eurokoa izan zen eta eskola-unitatekoa 97.507 eurokoa

EUSTATen datuen arabera, irakaskuntza publikoko ikastetxeen guztizko gastua 1.288 milioi eurokoa izan zen 2003an, hau da, %9,4 igo zen 2001. urtearen aldean. Ikastetxe publikoetako gastuak BPGdaren %2,6 hartu zuen 2003an. Bestalde, ikastetxe pribatuen gastua 737 milioi eurokoa izan zen, eta beraz, ikastetxe publikoek izan zuten guztizko gastuaren %63,6.

Gastuaren zatirik handiena, hots, %91,9 jarduera arruntak ordaintzeko erabili zen, eta gainerakoa, %8,1 inbertsioetarako. Gastu arrunta 1.185 milioi eurokoa izan zen eta honela banatu zen: %94 zuzenean irakaskuntzarako (horren barruan, kapitulurik garrantzitsuena langileria-gastuak hartu zuten, %89 hain zuzen); %0,8 jarduera osagarrietarako, eta %5,2 batez ere jantokiko eta eskola-garraioko zerbitzuko osagarrietarako.

1. grafikoa: Guztizko gastuaren bilakaera, hezkuntza-mailaren arabera (€ak milakotan)



Iturria: EUSTAT

Irakaskuntza-motaren arabera, unibertsitatearen aurreko mailak eman zituzten ikastetxeek guztizko gastuaren %74 hartu zuten, unibertsitateak %22 eta arte-hezkuntzak gainerako %4. Ikastetxe pribatuekin alderatuta, unibertsitate publikoak guztizko gastuari %10 gehiagoko ekarpena egin zion.

2001etik 2003rako bi urteko aldian, ikasleko irakaskuntza-gastuaren hazkunde-erritmoa (%6,8) gehiago hazi da unitateko gastuarena (%5,1) baino.

Ikastetxe publikoetako eskola-unitateko irakaskuntza-gastua 61.713 eurokoa izan zen haur hezkuntzan, eta 69.587 eurokoa lehen hezkuntzan. Irakaskuntza ertainetan, 107.394 eurokoa DBHn, 156.373 euro batxilergoetan eta 110.567 eta 121.008 euro artean Erdi eta Goi-Mailako Lanbide Heziketan.

Haur-lehen hezkuntzako ikasleko irakaskuntza-gastuari dagokionez, unitateko gastuekin gertatu zen bezala, gehiago kostatu zen lehen hezkuntzako ikaslea (4.867 euro) haur hezkuntzako baino (3.855 euro). Irakaskuntza ertainei dagokienez, 7.053 euro DBHkoa, 6.132 Batxilergokoa eta 7.742 eta 8.078 erdi eta goi-mailako Lanbide Heziketakoak, hurrenez hurren. Araubide bereziko irakaskuntzei dagokienez (hizkuntzak, musika, arteak eta lanbideak), berriz, 1.019 eurokoa izan ziren ikasleko gastua eta unibertsitatean 4.330 eurokoa.

Ikastetxe publikoen guztizko sarrerak 1.297 milioi eurokoak izan ziren: sarrera arruntak %92,5 eta kapital-sarrerak %7,5. Finantzaketa publikoak guztizko sarreren %94,5 hartu zuen. Iturri nagusia Hezkuntza Saila izan zen eta %86 finantzatu zuen, jarraian, udalek %5. Iturri pribatuek guztizkoaren %5,4 ekarri zuten, batez ere irakaskuntza-kuoten (%3,2) eta zerbitzu osagarrien (%2,2) bidez.

Aldagai nagusien bilakaerari buruzko laburpena

	1993	1995	1997	1999	2001	2003	Aldakuntza 2003/2001	Aldakuntza (1) 2003/1993
Guztizko gastua (milioi €)	681	782	855	959	1.178	1.288	9.3	6.6
Ikasleko irakaskuntza-gastua (€)	2.043	2.300	2.587	3.125	3.939	4.207	6.8	7.5
Gelako irakaskuntza-gastua (€)	45.040	49.504	57.210	63.347	79.617	83.704	5.1	6.4

(1) Urteko tasa metatua

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00. Faxa: +34-945 01 75 01. Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tel.: +34-945 01 75 47. Faxa: +34-945 01 75 01.

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp